

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Garrantzitsua da definitzea gure enpresak bezeroekin zein harreman mota izango duen.

Hainbat harreman mota egon daitezke aldi berean enpresa baten eta bere bezeroen artean: laguntza pertsonala, laguntza pertsonal eskainia, autozerbitzua, zerbitzu automatizatuak, komunitateak eta baterako sorkuntza.

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Guk bezeroarekin batera hazi nahi dugunez, bezeroari dedikatutako laguntza pertsonalean hezitako enpresa bat izango gara. Bertako eskaintza ekologiko baten bidez, erakarriko ditugu bezero berriak eta gurekin denbora bat daramatenak sarituko ditugu iraupen sistema baten bidez.

